

Mustraka

Pette Xibero : P. Lanouguère

Pastoral bat plantatzen düenean herri batetan, ez due güziek solas hori ber begiez ikusten. Etxeko jaun handi batek ikusiko dü hor bidexkanda bat aisa meragoala heltzeko. Eskentüko dü diharü peza bat; barrika bat ardo beste batek; harek bere oihaneko bizpalau zühain « teatrea »ren egiteko. Zonbaitek ostatüan harro-harroa 5 zirelarik erran hitza ez nahi jan, hitzaren etxekitzez ez oroer kausitzen, ez dakie norat üngürüka. Jokazaleek amets batetan, bildüko düen mündüziona haien botz ederraren behatzera eta laüdatzera.

(...) Egia erran behar düt haatik ni egon nizala, bena nahi gaberik. Ene aüzoko ezkaratz batetan zuen beren « mustraka ». Erran gabea, ostatü baten kantü-kantüan. 10 Ene ohetik entzüten nüan haien solasa, eta erri goxorik egin lehen gaüan.

Zinka eta kantüz heltzen dira güziak emeki-emeki: xahakotik drago bat honik, züntzürraren karrakatzeko, entelegüaren argitzeko. Gidaria han da, ezin edenean:

- « *Braigireia ! Au!* ». Süjetak hartzen dü lehenik bere lekziona errejentarekin.
- « *So egik!!* » Zankoak kürütxe, txapela saihetsealat, kreioa beharrian, botza 15 ozen.

- « *Has !* »
- « *Halhon! Mon garçon jar hadi mahain hortan, je va te donner la lezon!* »
- « *Ontsa dük « Halhon », bena behar dük erran « je vais ».* »

Letziona gaizki üngüratzen da: eskolierak errejenta ehaiten; bena bertan 20 ehorzten due « Magnificat » bi botzetan kantatzen düelarik... Bena « atür »güziek emeki-emeki lekua hüstü due.

Ostatüa kantü-kantüan da.

- « *Orai printzesaren eta aingürüaren aldi ! Non da printzes ?* »
- « *O, türk erregearekin, enperadorearekin eta kapütxiarekin, flor partida bati bütürz!* »

- « *Floreat ! Floreat ! Ez dueia beste lanik ?* »

- « *Horra gütük ! Horra gütük ! Ez düka pazentziarik ?* »

Printzea sartzen da : mutiko gotor beltzaran bat.

- « *So egik, eginen dük « teatrearen üngürüa, « espantaila » üsü begitardearen*

30 *aitzinean igitzen düalarik ! Jauregiko Madamak hitzeman ditadak prestatüko deiala bere zeta arropa, espantaila eta txapela. Hik behar düütanak badütük ! Bena non da Satan ?»*

- « *Sütondo xokoan, Aiat Saintüarekin, zankoen berotzen !* »

- « *Eta gü haien haidürü ! Aingürüa , abil txerkara!* »

35 Satan horra, jauzi eta zinkaz: - « *ene aldia deia bertan ?* »(..)

Bena noren beharra beitzen hura betik ihes ezkaratzetik...

- « *Au ! Senechal !* »

- « *Ari dük Octavius-ekin pintuaren edaten ! Ez deigük aski edatera emaiten hik !* »

- 40 Senechal heltü da: gizon gaitza, botz ozena. Zer Türk erregea ! Hasten da:
 - « *Halhon compagnons,*
Trabertzon la montagné.
Hil ny a point de pardon,
Ravachons la campagné »
- 45 - « *Ez dük lürra aski zinez joiten zankoekin. Ezpatari lau üngürü eginarazi behar dük, eta begi hori gaitzago!* »
 – « *Hiri, Octavius!* »
 Octavius-ek ordüan:
 -« *Halhon, mes camarades,*
 50 *Etsaiek heben dütüğü !*
Har ezatzüe ezpatak,
eta gardez vos positions. »
 « *Vos positions* » bai. Gaüherdi igaranik, eta zuen orroekilan ezin begia zerra !
 Egia bada erri goxorik egin düt.
- 55 Bena bihamenean eskerra hotz etxeetan ! Mutikoa edo senarra ezin ohetik igiaraz. Mezperan harro-harroa ziren sartü , ostatüan musa ondoa ützi, orai biloetan min. Alorretan lanak gibel, eta palari lotzera bihotzak ez laguntzen.
 Ber istoria gaü oroz. Eta etxekanderak, errautsak igitzen dütüalarik etxaltean, ezi badü hogei bat egün ber saltsan direla:
- 60 « *Ah ! Noiz akabatüko düzüe solaz tzar hori* »

Gure Herria, 1930-ko urtarrila

Flor : karta jokü bat
 Ezin edenean : ezon egon geldirik
 Entelegü : adimen

BACCALAUREAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE		
ÉPREUVE : BASQUE (Souletin)		
	Ce sujet comporte trois pages.	Page 2/3

1- ULERMENA : (10 püntü)

- 1.1 Idazki honen llabürpena egizü 5 lerrotan (L : 2 p. ; S : 4 p)
- 1.2 Zoin dira pastoral baten egiteko arazoak, idazlearen ustez ? (2 p.)
- 1.3 Nolako doinüa erabilten dü idazleak, mustraka horren kontatzeko ? (2 p.)
- 1.4 Etxekandereek nola ikusten due mustraka ? Nola aipatürik den egoera hori testoan esplikatüko düzü. (L : 4 p. ; S : 2 p.)

2 - ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 püntü)

- 2-1 : Pastorala edo trajeria literatür genero berezi bat bat da : zoin ? esplika ezazü bost ezagütgarri emanez. (L : 5 p.)
- 2-2 : Atzoko eta egünko pastorala aipatüko düzü **idazki libro** batetan. Testoaren gainean bermatüz bai eta zure jakitatea baliatüz erranen düzü zer den pastoralaren bilakaera. Zure iritzia azaltüko düzü amaieran, aldaketa horier bürüz argüdioak emaitez. (L : 5 p. ; S : 10 p.)

BACCALAURÉAT GÉNÉRAL ET TECHNOLOGIQUE	
ÉPREUVE : BASQUE (Souletin)	
Ce sujet comporte trois pages.	Page 3/3